

ITZULPENA¹

Araua: 455/2009/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2009ko maiatzaren 6koa, Kontseiluaren 76/769/EEE Zuzentaraua aldatzen duena diklorometanoaren merkaturatzearen eta erabileraren murrizketen arloan.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «**DECISIÓN 455/2009/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO**, de 6 de mayo de 2009, por la que se modifica la Directiva 76/769/CEE del Consejo en lo que respecta a las restricciones de comercialización y uso de diclorometano» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 137 de 3/6/2009)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA KONTSEILUAK ELKARREKIN
HARTUTAKO ERABAKIAK

**EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 455/2009/EE ERABAKIA, 2009ko
maiatzaren 6koa, Kontseiluaren 76/769/EEE Zuzentaraua aldatzen duena diklorometanoaren
merkaturatzearen eta erabileraren murrizketen arloan**

(Testu egokia EEEren ondorioetarako)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta bereziki,
horren 95. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu
dute⁽¹⁾,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote ⁽²⁾,

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Zenbait ikerketak pintura desugertzailak duten diklorometanoak (DCM) giza osasunerako dituen arriskuak ebaluatu dituzte⁽³⁾, eta Erkidegoan arriskuak gutxitzeko neurriak hartzeko beharra azaldu dute, substantzia hori modu industrialean, profesionalean edo pribatuan aplikatzen erator daitezkeen giza osasunerako arriskuak murrizteko. Toxikotasun, Ekotoxikotasun eta Ingurumen Batzorde Zientifikoak (CSTEE, ondoren Osasun eta ingurumen arriskuaren batzorde zientifikoa izena jaso zuen (SCHER)) ikerketa horien emaitzak ebaluatu zituen, eta pintura desugertzailak askatzen duten DCM substantziatik hurbil egotea giza osasunerako kezkarria dela berretsi du.

(2) DCM duten pintura desugertzailen merkaturatzea eta erabilera mugatzea komeni da osasuneko babes-maila altua lortzeko erabilera kategoria guztietan (industrial, profesional eta pribatuan).

(3) Partikularrek DCM duten pintura desugertzailak erabiltzen dituzte pinturak, bernizak eta lakak kentzeko, barrualdean zein kanpoan. Prestakuntza- edo kontrol-neurrien bidez ez denez posible DCMren erabilera pribatu segurua bermatzea, DCM duten pintura desugertzailak eratorritako partikularrentzako arriskuak desagerrarazteko neurri eraginkor bakarra partikularrentzat substantzia hori merkaturatzea debekatea da, eta horren horniketa eta erabilera ere debekatea.

(4) Hornidura-kate osoan DCM duten pintura desugertzailen erabilera progresiboki uztea modu proportzionalean aplikatzen dela bermatzeko, beharrezkoa da zenbait data ezartzea lehen merkaturatzea eta partikular eta profesionalentzako azken salmenta debekatzeko.

(5) Debekatuta egon arren, industria-erabilerarako eta erabilera profesionalerako banaketa-katearen bitartez partikularrek DCM duten pintura desugertzailak lor ditzaketenez, produktuan abisu-esaldi bat jaso behar da.

(6) Azken hemezortzi urteetan Europan industria-erabilera eta erabilera profesionalen arloan erregistratutako heriotzak batez ere arrazoi hauengatik gertatu dira: aireztapen eskasa, norberaren babeserako ekipo desegokiak, ontzi desegokiak erabiltzea eta DCMrekiko gehiegizko esposizioa. Hortaz, murrizketak ezarri behar dira industria-erabileratik eta erabilera profesionaletik eratorritako arriskuak kontrolatu eta gutxitzeko.

(7) Langileak babesteko legeriak, orokorrean, profesionalak babesten ditu. Hala ere, jarduera profesional ugari bezereen lokaletan egiten dira, eta haiek ez dute osasun arriskuak kudeatzeko, kontrolatzeko eta gutxitzeko neurri egokirik izaten. Horrez gain, langileak babesteko Erkidegoko legeriak ez ditu langile autonomoak babesten, eta horregatik DCM duten pintura desugertzailak erabiliz pintura desagerrarazi baino lehen formazio egokia jaso behar dute.

¹ C 77 EO, 2009.3.31koa, 29. or.

² Europako Parlamentuaren Irizpena, 2009ko urtarrilaren 14koa, (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea), eta Kontseiluaren Erabakia, 2009ko apirilaren 23koa.

³ Metil kloruroa: «Advantages and drawbacks of possible market restrictions in the EU», TNO-STB ikerketa, 1999ko azaroan bukatutakoa; eskuragarri hemen: http://ec.europa.eu/enterprise/chemicals/studies_en.htm; «Effectiveness of vapour retardants in reducing risks to human health from paint strippers containing dichloromethane», ETVAREAD aditultaldearen ikerketa, 2004ko apirilean argitaratutako urteko txostena, eskuragarri hemen: http://ec.europa.eu/enterprise/chemicals/studies_en.htm; «Impact assessment of potential restrictions on the marketing and use of dichloromethane in paint stripper», RPA ikerketa, 2007ko apirilean bukatutakoa, eskuragarri hemen: http://ec.europa.eu/enterprise/chemicals/studies_en.htm

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- (8) Beraz, DCM duten pintura desugertzailen merkaturatzea eta erabilpena profesionalentzat debekatzea komeni da, haien osasuna babesteko eta heriotza kopurua eta heriotza-istripuak gutxitzeko. Hala ere, DCM ordezkatzeko bereziki zaila edo desegokia den kasuetan, estatu kideek profesional baimenduei substantzia hori erabiltzen jarraitzea baimentzeko aukera izan behar dute. Estatu kideek salbuespen kasu horiek baimentzeko eta kudeatzeko erantzukizuna izan behar dute, eta baldintza izango da betekizun zehatzak dituen nahitaezko formazioa jasotzea. Hala ere, enpresaburu eta langile autonomoek ahal bezainbeste saihestu behar dute DCM erabiltzea; horren ordez, dagozkien erabilera-baldintzen barruan, arriskurik ez duten edo langileen osasunerako eta segurtasunerako arrisku txikiagoa duten eragile edo prozesu kimikoak erabili beharko dituzte.
- (9) Erregistratutako industria-jardueretako heriotza-kopuruak eta heriotza-istripuek islatzen dute DCM erabiltzen duten langileei aplikatzen zaien lantokiaren legedia modu eskasean betetzen dela. DCMren esposizioak altua izaten jarraitzen du, eta horregatik, industria-instalazioetan aritzen diren langileentzat arriskuak murrizteko neurri berriak aplikatu behar dira. Teknikoki posible denean, lantokian esposizioaren muga egokiak betetzea bermatzera eta esposizioa gutxitzea bideratutako prebentzio neurriak hartzea beharrezkoa da, esate baterako lantokia modu egokian aireztatzea, desugerketa-ontzietako DCM lurrunketa gutxitzea; horrez gain, beharrezkoa da, halaber, ontzi horietan DCM modu seguruan manipulatu dela eta norberaren babeserako ekipo egokiak erabiliko direla bermatzea, eta baita informazio eta formazio nahikoa eskaintzera zuzendutako neurriak ere.
- (10) Norberaren babeserako ekipoek Kontseiluaren 89/686/EEE Zuzentaraua bete beharko dute, 1989ko abenduaren 21ekoa, Estatu kideetako norberaren babeserako ekipoei buruzko legeriak bateratzeari buruzkoa⁽¹⁾.
- (11) Hortaz, egokia da, horren ondorioz, 1976ko uztailaren 27ko Kontseiluaren 76/769/EEE Zuzentaraua aldatzea, substantzia eta prestakin arriskutsu batzuen erabilera eta merkaturatzea mugatzen duten Estatu kideen lege, arau, eta administrazio alorreko xedapenei buruzkoa⁽²⁾.

Erabaki hau langileak babesteko oinarritzko betekizunak ezartzen dituen Erkidegoko legerian eraginik izan gabe aplikatu behar da; legeri hori osatzen dute, esate baterako, Kontseiluaren 1989ko ekainaren 12ko 89/391/EEE Zuzentarauak, langileen laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea sustatzeko neurriak aplikatzeari buruzkoa⁽³⁾, eta horretan oinarritzen diren zenbait Zuzentarau espezifiko, bereziki 2004/37/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, lanean agente kartzinogeno edo mutagenoen esposizioarekin lotutako arriskuen aurkako langileen osasuna eta segurtasuna babesteari buruzkoa (seigarren Zuzentarau espezifiko Kontseiluaren 89/391/EE Zuzentarauaren 16. artikuluko 1. paragrafoaren arabera) (bertsio kodetua) ⁽⁴⁾, eta 1998ko apirilaren 7ko Kontseiluaren 98/24/EE Zuzentaraua, lanean langileen osasuna eta segurtasuna eragile kimikoekin lotutako arriskuen kontra babesteari buruzkoa (hamalagarren Zuzentarau espezifiko, 89/391/EEE Zuzentarauaren 16. artikuluan 1. paragrafoaren arabera)⁽⁵⁾,

ERABAKI HAU HARTU DUTE:

1. artikulua

76/769/EEE Zuzentarauaren I. Eranskina Erabaki honen eranskinean ezarritakoaren arabera aldatuko da.

2. artikulua

Erabaki hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratzen denetik 3 eguneko epean sartuko da indarrean.

3. artikulua

Estatu kideak dira erabaki honen hartzaileak.

Estrasburgon egina, 2009ko maiatzaren 6an.

*Europako Parlamentuaren
izenean,
Presidentea,
H.-G.PÖTTERING*

*Kontseiluaren
izenean,
Presidentea,
J.KOHOUT*

¹ L 399 EO, 1989.12.30ekoa, 18. or.

² L 262 EO, 1976.9.27koa, 201. or.

³ L 183 EO, 1989.6.29koa, 1. or.

⁴ L 158 EO, 2004.4.30ekoa, 50. or.

⁵ L 131 EO, 1998.5.5ekoa, 11. or.

ANEXO

En el anexo I de la Directiva 76/769/CEE se añade la partida siguiente:

<p>«58. Diclorometano Nº CAS 75-09-2 Nº EC 200-838-9</p>	<p>1. Los decapantes de pintura con una concentración de diclorometano igual o superior al 0,1 % en peso:</p> <p>a) no se comercializarán por primera vez para su venta a los particulares o a los profesionales a partir del 6 de diciembre de 2010;</p> <p>b) no se comercializarán para su venta a los particulares o a los profesionales a partir del 6 de diciembre de 2011;</p> <p>c) no serán usados por profesionales a partir del 6 de junio de 2012.</p> <p>A efectos de la aplicación del presente punto:</p> <p>i) “profesional” significa toda persona física o jurídica, incluidos los trabajadores y los trabajadores autónomos, que lleve a cabo actividades de decapado como parte de su actividad profesional fuera de una instalación industrial;</p> <p>ii) “instalación industrial” significa una instalación usada para actividades de decapado.</p> <p>2. No obstante lo dispuesto en el punto 1, los Estados miembros podrán autorizar, en sus respectivos territorios y para determinadas actividades, el uso de decapantes que contengan diclorometano por parte de profesionales formados específicamente para ello, y podrán autorizar la comercialización de este tipo de decapantes para su venta a dichos profesionales.</p> <p>Los Estados miembros que hagan uso de este supuesto de excepción establecerán disposiciones adecuadas para la protección de la salud y la seguridad de los profesionales que usen decapantes que contengan diclorometano, e informarán de ello a la Comisión.</p> <p>Dichas disposiciones incluirán el requisito de que los profesionales mencionados obtengan un certificado reconocido por el Estado miembro en el que estos operen, o bien presenten otro justificante documental con un valor equivalente, o bien hayan sido autorizados a tal efecto por el Estado miembro de que se trate, de modo que quede demostrado que han sido debidamente formados y cuentan con las competencias necesarias para usar decapantes que contengan diclorometano.</p> <p>La Comisión elaborará una lista de los Estados miembros que hayan hecho uso del supuesto de excepción a que se refiere el presente punto y la publicará en Internet.</p> <p>3. Todo profesional que se acoja al supuesto de excepción a que se refiere el punto 2 podrá ejercer esta actividad únicamente en el Estado miembro que haya hecho uso de dicho supuesto de excepción.</p> <p>La formación a que se refiere el punto 2 incluirá como mínimo los aspectos siguientes:</p> <p>a) sensibilización, evaluación y gestión de los riesgos para la salud, incluida la información sobre los productos de sustitución y los procesos que, en sus respectivas condiciones de uso, impliquen un riesgo menor para la salud y la seguridad de los trabajadores;</p> <p>b) empleo de ventilación suficiente;</p> <p>c) uso de equipos de protección individual adecuados que cumplan los requisitos establecidos en la Directiva 89/686/CEE.</p> <p>Los empresarios y los trabajadores autónomos deberán sustituir preferentemente el diclorometano por agentes químicos o procesos que, en sus respectivas condiciones de uso, no impliquen ningún riesgo o presenten un riesgo menor para la salud y la seguridad de los trabajadores.</p> <p>Los profesionales aplicarán en la práctica todas las medidas de seguridad pertinentes, incluido el uso de equipos de protección individual.</p> <p>4. Sin perjuicio de la aplicación de otras disposiciones de la normativa comunitaria en materia de protección de los trabajadores, los decapantes de pintura que contengan diclorometano en una concentración igual o superior al 0,1 % en peso podrán utilizarse en instalaciones industriales únicamente si se cumplen como mínimo las condiciones siguientes:</p>
--	--

- a) que exista una ventilación eficaz en todas las zonas de tratamiento, y en particular en las zonas de tratamiento húmedo y de secado de los productos decapados, esto es, un sistema de ventilación local por aspiración en los tanques de decapado junto con un dispositivo de ventilación forzada en las zonas correspondientes, de modo que se minimice la exposición y se asegure el cumplimiento, cuando sea técnicamente posible, de los límites pertinentes de exposición en el lugar de trabajo;
 - b) que se apliquen medidas dirigidas a minimizar la evaporación de los tanques de decapado, incluyendo los elementos siguientes: tapas para cubrir los tanques de decapado, excepto en los procesos de carga y descarga; procedimientos adecuados de carga y descarga de los tanques de decapado, y tanques de lavado con agua o agua salobre para eliminar los residuos de disolvente después de la descarga;
 - c) que se apliquen medidas para la manipulación segura del diclorometano en los tanques de decapado, incluyendo los elementos siguientes: bombas y conductos para la transferencia de los decapantes de pintura a los tanques y para extraerlos de los mismos, así como medidas adecuadas para el limpiado seguro de los tanques y la eliminación segura de los lodos;
 - d) que se disponga de equipos de protección individual que cumplan los requisitos establecidos en la Directiva 89/686/CEE, incluyendo los elementos siguientes: guantes de protección adecuados, gafas de seguridad y ropa de protección, así como equipo de protección del sistema respiratorio cuando no se puedan cumplir de otro modo los límites pertinentes de exposición en el lugar de trabajo;
 - e) que se proporcione a los trabajadores la información y la formación práctica suficientes para el uso correcto del equipo mencionado anteriormente.
5. Sin perjuicio de otras disposiciones comunitarias sobre clasificación, etiquetado y envasado de sustancias y mezclas, a más tardar el 6 de diciembre de 2011, los decapantes de pintura que contengan diclorometano en una concentración igual o superior al 0,1 % en peso deberán ir marcados de forma visible, legible e indeleble con la siguiente indicación:
- “Uso restringido para fines industriales y para profesionales debidamente autorizados en determinados Estados miembros de la UE. Compruébese la vigencia geográfica de la autorización.”»